

**Eutsi egiten dio bere bultzada komertzialari eta finkatu egin du bere
hazkunde aldia**

**EROSKI-K 13,2 MILIOI EUROKO EMAITZA
POSITIBOAREKIN AMAITU DU 2025EKO EKITALDIKO
LEHEN HIRUHILEKOA**

- **Salmenta gordinak 1.385 milioi eurotara iritsi ziren**
- **Ebitda 59 milioi eurotara iritsi zen, iaz baino %1,5 gehiago**

Elorrio, 2025eko ekainaren 23a.- [EROSKI](#) taldeak ekitaldiko lehen hiruhilekoko kontuak itxi zituen (2025eko otsailaren 1etik apirilaren 30era), eta fakturazioak jarraitu dio azken ekitaldietako hazkunde ildoari. Hala, jardueraren bolumenean salmenta gordinak 1.385 milioi euroraino iritsi dira.

Elikagaien arloko salmenta gordinak izan dira hazkundearen motor nagusi, %1,5 igo baitira 2024ko aldi berarekin konparatuta; hala, 1.316 milioi eurotara iritsi dira. Emaita positiboa 13,2 milioi eurotaraino igo da, %38 gehiago iazko lehen hiruhilekoa baino.

Aurrerakada horretan zerikusia izan dute sustapeneko eta prezioei eusteko ahaleginek izan duten harrera ona, zeinak 2021eko amaieratik abiatuta, helburu izan dute kostuen igoerak salmenta prezioetan ez erasateko helburua. Gainera, aurrezpenean egindako inbertsio hori esplotazio kostuak gero eta handiagoak diren eszenario batean eman den arren, taldeak lortu du bere inpaktua mugatzea eraginkortasunean egindako hobekuntzei emandako jarraipenari esker.

"Hiruhilekoa iragartzen genuen bezala itxi dugu: gure eredu komertzialaren sendotasuna eta eraginkortasuna berretsita eta gure lehiakortasunaren posizionamendua indartuta. Era berean, kontsumitzaileei aukeratzeko gaitasuna eman diegu aukera sorta zabalarekin, eta apustu egin dugu marka propioaren eta produktu freskoen alde; hala, ezohiko kalitate-prezio harremana lortu dugu, eta, horrekin batera, aurrera jarraitu dugu eraginkortasuna hobetzeko ekimenak ezartzen, horietako asko analisirako tresna aurreratueta eta adimen artifizialean bermaturik. Horren erakusgarri da urteko lehen hiru hilabeteetan Ebitdak 59 milioi euro iritsi izana, iaz epe berean baino kopuru handiagoa. Beraz, esan dezakegu ona dela gure jarduera operatibo eta komertzialaren bilakaera", esan du EROSKIko CEOak, Rosa Carabelek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

EROSKI taldeari buruz

EROSKI Espainiako lehen banaketa talde kooperatiboa da, eta liderretako bat Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Halaber, 6,3 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, 27.600 bazkide kooperatibista eta langile bazkide baino gehiago, horietatik 9.000 sozietatearen jabe ere badirenak; eta 600 denda frankiziatuetako langileen kolektiboa gehitu behar zaio horri.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)